



**BIZKAITARRAI
BIZKAIERAZ
95n. ZENBAKIA
EPAILLA
(Martia)
1986**



**URKIOLA: SANTUTEGIA
ARNAS-LEKUA
MISIOIARI-ETXEA**

**BIZKAITARRAI
BIZKAIERAZ
95n. ZENBAKIA
EPAILLA
(Martia)
1986**



**URKIOLA: SANTUTEGIA
ARNAS-LEKUA
MISOLARI-ETXEA**

“REGIO” ANTZOKIA

Orain egun batzuk, Urtarrilla'n azken-aldian, irakurri genduan “DEIA” egunkarian, galdakanotar askori zirriada samiña jakun izpar bat, erri onetatik txairo izparrak idatziten dituan “Elvira Alava”ren bitartez; erriko “Regio” antzokia edo zinema eratsiteko erabagia artua dauala bertoko Udalak etxegille edo arkitektoak aurkeztu dauan egitamua aintzakotzat artuaz.

* * *

Galdakanotar askoren eretziz, Udal euzko abertzale batek, eta beraz euzko jakintza-zaleak, artu leiken erabagirik ezezkorren bat iduritzen jaku, antzoki ori, areto eder zabal ori, eratsi ta kendutea, ez dogulako errian orrelako ez bes-telako areto bat jakintza oroikor bat, eta gitxiago euzko jakintza, bultzatuteko beralako toki egokiagorik. Antzoki orretan ospatu leitekezalako garrantzizko erestaldiak, euzko dantza bikaiñak, itzaldi mamitsu ta jakingarriak eta abar luze bat. Ots-izti (acústica) ona eukiñik antzoki orrek, oso egokia dalako edozein egikizun ondo entzunaz atsegin egiten dalako ikusle-entzuleentzat.

* * *

Atxakitzat ipinten dabe, gure eretxi apalean, antzoki orren barru-aldea pizka bat baiño geiago, tankera txarrean aurkitzen dala azken-aldiko lau edo bost urte oneitan ertsita aurkitzen dalako, bere ugazabak adierazoten ei-dabenez, ez dabelako muzkiñik, irabazterik ez daualako emoten.

Eta orretara izanik, jakiña! aberatsak, eukitsuak txindia ezertan eralgiten dabenean, asko irabazteko izaten da, bestela naiago dabe ezer egin barik egon, naita kaltegarri izan gure Aberria'rentzat.

* * *

Gure Udalak, Aldundiak eta Euzko Jaurlaritzak ez dira bardin, eta ez dabe izan bear be jakintza-arloan, gure erriaren, Aberria'ren onerako diran jolastokiak, idaztitegiak eta batez be ikastola eta ikastetxeetan txindia zabaltzeko, al dan lekuraiño, oraintxe ez bada be geroko aberastasuna izango dalako erri-zindo jakintsua.

Gure ta beste erritar askoren eretziz, Galdakano'ko Udalak (geien-geiena abertzalea) egin bear leukena da, “Regio” antzoki zabal orretaz jabetu, apaindu ta beratana egin leitekezan ospakizun askotarako gertatu, jakintza orokorrerako eta batez be euzko jakintza indartu ta zabaltzeko areto bikain bat izatera arte. Leku orretan egitea erabagi daben etxeak eta enperantzaxua beste lurralde azke ta zabalago baten egiteko laga ondoren, erri onek badaualako, zorionez, leku zabalagorik.

* * *

Guk azaldutako asmu orreik egitera eroateko txinditza aundia bearko litzakela? Bai ziur, baiña, orain-artean be gure Udalak lortuak ditu bai Bizkai'ko Aldundi'tik eta bai Euzko Jaurlaritz'a'tik, oraingoa lez, bearreko gaietarako izan diranean. Eta, “Regio” antzokia bear-bearrekoa dau Galdakano'ko erriak, bera lako beste bat ez dogulako ogeita zazpi milla biztanletik gora dituan Galdakano'ko errian.

* * *

Jakiña da, gure idazlan au bear bada egokiago izango zan, geiagok irakurri dagian, lenen aipatu dogun izpar lez, “DEIA” egunkarian argitaldutea, baiña, eragozpenik asko aurkitzen dogu izparringi orretan Bizkai'ko euzkera-lanak argitalduteko eta, orregaitik geien bat ekarri dogu illeroko ZER onetara gure idazlan apal onek, bertan argia ikusiko dauan ziurtasunaz.

ALTUNA'TAR JOSU

ALKAR ULERTU

BEARREZKOA

Gauza bearrezkoa da gutzat, benetan, astiro ta ondo entzun besteak esaten dauskuena eta erantzuna zentzunez eta egokiro emotea. Ortxe dago euskaldunen jokabide eder bat.

Eta gure gorputza bera be orretarako egiña dagoala ezin ukatu: Entzumena eta mintzamena edo berba egiteko almena daukaguz. Baiña bai entzunak eta bai esan bear dogunak burutik igaro bearra dauke eta igaro-aldi au nai-koa arin egin al izan arren, gauzak euren epea bear izaten dabe, baiña gaur estu ta arin-bearrean bizi gara eta egin-bear oneik patxadaz egiteko bear dogun beste asti ez dau-sagu emoten geure buruari: Arin entzun eta arin erantzun, ori da gaurko trebetasuna ta zurtasuna, baiña antxi-ñatik esan dabe euskaldunak arin eta ondo usoak egiten dauala egaz. Esan gura da, gauzak arin egitera beartzen gaituenean ez dirala bear dana beste ondo egiten: Ariñegi entzuten dana txarto entzuten da, ariñegi esaten dana txarto esaten da.

* * *

GAITXA

Alkar ulertzeko bear dan lasaitasun edo nasaitasun ori artzea ez da ba gauza erreza gaurko gure mundu onentzat. Artegatasuna da gaur nagusi.

Eta ori bakarrik ba'litzake! Sarritan entzuten diran gauzak iraingarriak izaten dira eta beingo baten erantzuteko gogoia sortzen dau iraiñak edo guzurrezko salakuntzeak.

Iraiña izan ez arren, beste batzuk euren eritxia danaren gaiñetik ezarri gura izaten dauskue eta orretarako berba-iturriak ura ugari emoten dau. Eta or geratzen gara entzuten doguna aztertu-eziñik.

Ondo dakigu entzuten dogun dana ez dogula geiago barik onartu bear, aztertu eta pentsau egin bear dala, baiña ez dauskue emoten orretarako astirik: arin erantzun bear da eta erantzuna onartzea ez ba'da, laster izango dogu gaiñean berba-ibai barri bat... eta guk ezin iruntzi, ezin egosi...

Orduan eroak garala, azalutsak garala, azagariak edo lukiak garala eta beste zenbat irain! jaurtiko dauskuez!

ERAGOZPENAK

Alkar-ulertu-eziña dago ba gure artean, eta ugari egon be.

Zergaitik?

Esaten dauskuena gogotsu, zentzunez, patxadaz entzuten ez dogulako. Entzuten dogula pentsateko, ausnartze-ko, astirik emoten ez jakulako.

Aspaldion, besteak esaten dabenaren aurka jarteko jokabidea sortu jakulako: Entzun-orduko gure barruan erabagia artuta dago. "Diñoaña diñoala, ni aurka nago".

Edo obea ez dana, zarratu egiten garalako. Esan dagia-la gure dauana, nik erabagia artuta daukat.

Edo entzun eta isilik entzundako ori gorde-bearrean, beti erantzuna emon bear izaten dalako.

Olako eragozpenak eta antzekoak azpiratzen ez dogu-zan artean, alkarrizketa nasaia ta gozoa eziña da.

* * *

BIDEAK

Urtenbide asko billatu leikioz arazo mingarri oneri, baiña bat auxe izan daiteke: Berba egiteko txandea artu eta ez iñoz ebagi berbetan dagoanaren ekiña. Eroapenez itxaron. Zori txarrez, beste au be jazoten da: Zeu itxaron eta itxaron egon eta berbea artu orduko kentzen dautzuela. Txandea eskatu bear!

Alkar-izketarako eratzailleak edo moderatzailleak ipin-ten dira gaur taldeetan. Ez da lan erreza! Baiña bearrez-koa da. Eratzaille onek, gaiñera bere zeregiña ondo bete-teko, ba-dauz beste arau batzuk be.

* * *

EUSKALDUNAK

Euskalduna berba gitxikoa dala esan izan da beti. Baiña ori be antxiñako egia ete dan. Gaur oso barritsu biurtu gara. Ez ete da euskaltasuna galdu dogulako?

Obeto izango da lengora biurtzea euskaldun lez, entzuten onak, esaten laburrak eta egiten luzeak izan gaitzean.



URKIOLAKO SANTUTEGIA

Bariku guztietan lez, gaur ere Urkiolan mixio batzarra izan dogu.

Dakizuen lez, Urkiolako Santutegia euskal mixiolarien ardurapean dago.

Urkiolan gordeten dogu mixioen artxiboa, emen astero alkartzen gara, bai mixiolari, bai iru Elizbarrutietako arduradunak. Bizkaitar, Gipuzkoar ete Arabatar guztiok Urkiolako tontorrean bat egiten dogu.

Gure gaurko gaia, Jose Deunaren, edo euskal mixiñoen eguna, gertatzeko izan da. 38 urte daroez euskal mixiñoak, eta Jose Deunaren jaiagaz loturik egon izan dira beti.

Baiña aurten Erri agintarien aginduz, Jose Deunaren eguna asteguna izango da, naiz-ta Elizak jai lez jarraitu. Ori dala-ta, aurreko domekan ospatuko dogu aurten, naiz-ta Jose Deuna kontuan eta gogoan izan.

* * *

Aurtengo gure mixio eguneko elburua au izango da: "Bakea lortzeko, ogia obeto banandu".

Aurten ospatzen da mundu guztian bakearen urtea. Baiña bake lortzeko bidea, zuzentasun ete justizi eragiñak betetea da.

Orantsu gizon batek esan eustan: "Gugaitik zer esango ete dabe emendik eun urtera? Egunkari, liburu, itzaldi ete milla lekutan, justizi berbea aitatzen da. Esan leiteke justizi muga ete egarri guztiak lortu doguzala. Bakeari buruz be, ainbat gauza esaten dira. Bestealde, gerra, gogorkeri, izugarritzko dezbardintasun ete goseteak dira gure munduan nagusi. Txiroak, baztertuak ete menperatuak ainbat dira ete nun nai aurkitzen dira".

* * *

Arrazoi aundia dauka gizon onek. Gure miñera eldu dira berba garrantzitsu onek, baiña ez dira jatsi gure biotzetara...

Orregaitik, aurtengo gure euskal mixio egunerako gai ori aukeratu dogu. Bakea bai, baiña justiziaren eskutik.

Orantsu ospatu dogu Urkiolan San Anton zaarraren jai. Negu gorrian dan ezker, jente gitxi etorten da bederatzi-urrenera. Etxean ete etxeokak bakarrik, egin dogu. Bere bizitzaten zati batzuk irakurri doguz geure eguneroko otoitza oiñarrituteko. Irugarren egunean au irakurri genduan:

San Anton ogeita bi urtegaz umezurtz genditu ei zan. Bere aitak, ilzorian egoala, deitu ete esan euston: "Seme maite, ni zerura noa. Ondasun guztien oiñordeko ete jabe

izten zaitut. Baiña jakin egizu, ondasunak ez dirala zureak bakarrik ete zuretzat bakarrik".

Aita il ondoren, mutil gazteak erabagi sakon bat artu eban. Bere ondasunak bertsuen artean banandu ebazan, ete biotzeko askatasun ete poztasuna lortu ebazan. Bere burua aske ete pozik ikusirik, beste pauso bat emon eban, Jainkoaren billa basamortura joan zan.

* * *

San Antonen aitak ondo ekian ondasunen eginbearra. Eta gure Santuak ondo bete eban bere aitaren erakutsia. Bide ete jokabide orretan aurkitu eban bere barruko askatasun ete poztasuna. Besteari bere ondasunak bananduz, Jainkoagaz bat egiteko gerta zan. Jainkoa, lagun urkoaren bitartez ezagutu ete onartu aal izan eban. Bakea egin ete bakea lortu eban.

Aita Santuak esan euskun lez, bake egille izateko, bakean bizi bear dogu. Eta ezin dogu bakerik izan, besteen lepotik bizi bagara, edo besteak menperatuz ondasunak lortzen badoguz ete gareana ete daukaguna besteakin ez badogu erabiltzen.

"Bakea lortzeko, ogia obeto banandu", au da gure Jose Deunaren inguran erabiliko dogun gaia, geure euskal mixioak kontuak izanik.

* * *

Ogia aitatzen dogunean, ez dau nai esan bakarrik gure janari dan ogia, zerbait geiago esan nai dau: Geu garana ete daukaguna besteakin, batez ere beartsuekin erabiltea. Modu askotako ogia eskatzen da ba. Bakoitzak ikusi bear ko dau, zer egin edo eskiñi aal dauan besteen alde, besteak geu bestean bizi daitezcan...

Gure Iru Elizbarrutiak zerbait egin dabe mixio lurraldeetan, bai Ameriketean ete bai Afrikan. Gure eliztarrak euren limosnakin lagundu dabe, gure abade askok ete erlijioso/sa askok mixio orretan parte artu izan dabe. Gure erriko gazte askok euren osasuna ete gaztetasuna lan orretarako eskiñi dabe. Beste askok, emen aal izan daben guztia egin dabe. Baiña uste dot, oraindiño geuk "sobre" daukaguna eskiñi dogula, ez dogu benetako banaketa bat egin, ez dogu geure biotza besteari eskiñi, ez dogu sakonean beartsuakin bat egin.

Gure aurtengo gai au, ez da bakarrik mixio-arazoak beteteko, gure erri edo gure arterako be balio dau... Emen be OGIA OBETO BANATZEN ikasi bear dogu.

Gure Euskal Mixiñoen eguna ospatzeak, geure buru biotzak zabaltzen lagundu daiskula, baita esku zabalak izaten. Urkiolatik biotzez.

JOSEBA I. LEGARZA

DIRUDUNAK

Ni neuk (erderaz esaten dan lez, astoa aurrean uxatu ez daiten) Etarrekaz berba egiteko garai bi cuki dodaz, neu billatzen ibilli barik aurkeztu jatazanak, beraz. Nun eta zelan?

Entzun Bilbon bizi nintzanean lau urtez joaten nintzan Portugalete'ra. Euzkeraz Mezea esaten ta Ebanjelioa irakurria gero onen azalpen labor bat egitera. Zeregin onetan lau urte egin nebazan esan dodanez Zubi osapatsu (no hay en España lere...) dingillezkea igarota Lekaime Kolejoaren eleizatxura elduteko kilometro-erdi bide Bilborantzako erriko Udaletxea dago. Emen asten da aldatz bat ara kolejora sartu baiño lenago. Bein baten aldatz ganean egoan gizon gazte sendokote bat mutil koskor batzuek inguratutik. Nor zan bular agirian iragarki batek esaten eban. Agurtu neban ez dakit euzkeraz ala erderaz, ikusirik berak ez ekiala euzkeraz, esanez: "Pero vosotros los Etrras qué vida más difícil la que os lleváis"!... Egun atan udaletxetik igarotcan, berba egin neban an egoran Udaleko ertzainekin, augaitik Etrrar iñostan: Apaiza —por qué has hablado con ése... no me acuerdo qué calificativo le endilgara. No comprendes que yo como representante de Cristo, sin hacer ninguna discriminación, con todos debo hablar por igual?... —Bueno, apaiza.

Beste baten txadonera Mezea esaten niñoayala, batzokitik urtenda, nun Meza eurrez ordu bat egoten nintzan Euzkerea irakasten, nire ondotik igaro zan Etar bat (ez dakit lengo garaian nigaz berba egin eban berbera izango zan); eta neuri begiraturik zearretara, neuganatuaz esan eustan: Apaiza, ya sabemos que tú andas contra el batua. —No hombre, no es así. Lo que me preocupa a mí es que no se proteje en Bizkaia nuestro Euskalki. Y si no lo protegemos, aquí desaparece el Euzkera. El Gobierno Vasco, la Radio, la Televisión están de consumo ahogando el vascuence en Bizkaia. Nunca ha llegado a tus oídos la afirmación del gran escritor euskaldun Kerexeta de que el batua nos ha hecho más daño en nuestro idioma que los 40 años de la Dictadura de Franco. Además, yo vengo aquí a Portugalete a que me entiendan el vascuence Bizkaieraz, que, como es natural empleo en la Misa y explicación del Evangelio. Y el batua con su gipuzkera osotua embrolla mi labor. —Está bien, apaiza. Y así nos despedimos. Gero jakiten dogu Euzkadi'ko biztanle danok antzera, Etraren egitadak. Oraintsu, Athletiko'ren Buruzagi Guzman jauna oratu egin eban, ta geroago emon egintza orren errazoi-zegaitia: Euzkadi'tik alden du gura ebela Kapitalismo ta Oligarkia. Eta nik neurekautan oldoztu edo asnaurturik Etraren egitasmoa, olan gogarten neban: Baiña gure anai Etrarok egingo leikie ori, jakitez Sorkalde'ko Ekonomi guztitarren oñarria Kapitalismuan datzala? Prantzi ta España'ko Laterri Sozialistak, gure askatasunaren arierioak,

curak be dabiltz Kapitalismuaren aurka, eta eurak alizate andia cuki arren ez dira gauza orretarako, zelan lortuko leuke ori Euzkadi askatuak? Nik diñot...

Irlanda'ko aldirikari baten arpededun naz. Abendua'ren illean urten zanak idazlan sakona ekarren niri asko ausnartu eragin custana, ta andik neure gogaeran sartu zirean gogamen oiñarrizko sakon batzuk. Atsegin jat Etrari eskeintzea filosofu adimen argi euretariako ainbat diralako.

Ydazlanaren idazpurua au da: Zegaitik gara ain diruzale ta andi-zale? idazkiak Protestante-Etikan ta Kapitalismu-Espirituan erakusten artasun sumagaia setu ta beteteko baiño. Besteguzur-antz prádoxa ikusten zan: atsegin berezkoaren zeatz galeraztea (Estoizismo ta Budismo) antzera.

Nundik sortzen zirean aurkako joera oneik?

Gizarte goratatze geiagi eukitearen gurariaren onarri ta norabidea Sorkaldean aurkitzen dogu gogo larri-une krisisa Kalbinismuak eraginda. Bere sustraia atzeraldal salbamenaaren ziurtasunari ezezkoa Katolizismo aoz-aozkoan sustertzen zana "barruzko bakartasunaren itzelezko" artega estu-aldia" Sinistedunak ezin egon leitekezan ziur betiko oñazetan inpernurako galdurik Urtenbide, askebidea non? Gogorapen samieizko au alden du bear eban lanean ta bizitza garbi ta pekatu bakoan ibilliz. Onelan sortzen zan mundu zabaleko azetika kristiñau jardura.

Weber'ek deituten eutson agerkaria bere berarizko aolku onurakaz: ukatu, urrundu ezbearreko berbak ta gurari uts alperrekoak; ur da aldía. Ebanjelioko trebetasun Parabolak diñosku deukonari geiagi emongo jakola, ta gitxi cuki czkero, gitxitxu ori be, kendu egingo jako. Esakun done onek, txarto ulertuta, sortu eban Barri Onaren asmoa zala Jainko Berak Liberalen ekonomiku esaera. laissez —faire, batezten eballa.

Weber'en irakatsi au ain argitsua izan arren kapitaldirutza egitearen aldirari batena ulertzeko gaurok gizarte jardunean, itaunketa barriak sortuteko bakarrak balio dau. Orain Sorkaldeko geienentzat, agiriz Jainkoa bakarrak ilda ez dago, baita iñoz ezta egonik be, nondik ataraten dabe arnasean, indarra curen arazo ta zeregietan ondore on, adur alabear, zorion pozezkoa eukiteko? Zegaitik Kennedytarrek ta JRskock Aberri gustien Teleikuskin ta izparingietan satza lez milloi milioiak irabazki egin bear dabe? Eurok curen aberastasunean kristiñau jardura aszetismuan bizi ete dabe? Eta Prince Andrew edo Paul Mc Cartney ixillezko bizitzak erentzen ne sortzen etc dira Kalbino edo Cromwell bizieratik, zeñentzako soñu cresiak eta Gabonetako gozo-turroak jatea, egomen-zeregin bada-ozpadako keskatsu zirean?

Orratiño Weber'en aurretikoa (premia) suntzi-erosas larienean oiñarrizko errazoi bateren bat baicztu izan dabe gizarteko gogotari geienak.

Jatorrizko kritika-esamesa aurkestean deusku Eric Fromm'ek. Bere *Sane Society*'k billatu arakutzen dau Sorkaldeko ekanduen balioasunak, ta gexorik dagozala diño. Berentzako jazoera au industrialgintza gizartean biztanle geienak cri-kirios-neurosis gaitxean, guk nekez epaitu ta igarri geinkena bizi dira. Armi-arma sare materialismo ta norgeiagokeri indarrak antolatuta ta eratzen dauz gure bizitzak galeratzen osasunezko artu-emonak gure bear, zeregin eginkizunaz gure lagunekin ta batez be, norbere geuzaz. Nekezko korapillotsu ori orrek ez dauko bakarrak lanbakoekin ikusterik. Era ixillean ta ia oartu barik be eroso aberatsen bizitzetan, euren dirua ez eldu yakenen lan sor-

tzailletik, autsi-mautsi ingunde ta aldakuntza zenbaki kopuru orrien danbili-dantzata. Izan be, metafisika craz ulergatx egiten yaku aberaztasuna egiteko bide igaraldia: orain diru etxeren jardueran, dirua-izki jarraikiz ezta besterik elektronikoko taupadak (konputadora) zenbaitzaillearen oroimenak barruan dituanak, atzamarrakaz irakurten (sekundario) urrangoa izango da gizakientzat. Fromm'ek buruetara dakazku, diru-gosez naigabeturik dagozantzat psikoloji errazoi egiazko biotz-ikara ziurtasunaren bear-aldia, ziurtasuna bakarrean txarrestu dala. Norberaren geikuntza, aurrera aldía, Kapitaldirutzaren geikuntza edo geigarrian aldatu egin da. Fromm'ren azkenengo idaztarian, To have and to be, cuki ta izan, bateratzen da psikoloji utsune onetan gizataldean, zentzukizunearn, biotz-ikaran, aldian, osasunean, maitasunean, gogamen eta sinismenean be eskuartzeko zerbait, ez poztuteko, jabetza izateko baiño.

Azken amarraldi gitxi direala, ikusi izan dira salerosketa muetaren agertzea, nun guztia norberaren nortasuna be salerosketa gai biurtzen zan zeezer eskakizuna egiteko. Laguntalde batzuk etziran gauza ardura eukiteko, ez, norbereko ez zirealako curen artucumonak besteakaz ta eurentzat ain ziztrian ta garrantzi —ezak baiño. Izakera onek be azaldu leike zegaitik diran ardurabakoak nuklear arriskueta ta ekoloji ondameanean, jakin arren be ta agertu curen aurrean arrisku orren bide, zertzelada, ta zeastasuna. Eta Irugarren Munduaren eskeintzak biotz-ikara gi-xiagi egiten dautse curen berbil barri urratu atzaparrada batek baiño. Orregaitik Fromm'entzat, berak iragartzen dauanez munduko txiro, ezcuikiena artean iraungo dau, daukien arteko gogoespiritu txiroitasuna irauon czkero. Diru zalekeria, diru-gosea gizarteko zuzentasunaren aurka obenpekatu astuna, uts-egiterik andiena Aberatzak ta entzutetsuak labankeri ameskeri, bekaizkeri gai diran bitartean diru gosearen eri-patolojia gatx egingo yaku bizi garan mundu onetik aldenutea.

Letona'k



AITA RHANER'EN ESKUTITZAK

Norbert maitea: Lenengo begiraldiaz, zure eskutitzean geien mireztu nauana zintzotasuna da zeure burua zeatz azaldutea. Zer ez ete dozu ikusi ta zertzuk ez ete dira igaro izan zure 17 urtetan zear!

Asikeran, zeu goresteko tentaldia euki neban, berariz zeure buruaren azterketa latzagaitik.

Baiña zalantza ezbaietan geratu naz, eta buruari itanduten deusot zer ete dagon gauza guzti orren ostean?

Zelan ibilli leiteke norbera norberaren aurka, norberaren samatik oratu ta norbera astindu ia uruinteraiño? Ez ete daizango azpijokoren bat-nok esan al izango dau bizitzeatik aterateko poztasun zati bat, zeu irrikatuz sotinka zabiltzan zoriona?

Jakin bear dozu ni ez nazela sakonezko psikologu berarizkoa, ezta pillako edozelango psikologua; orregaitik ezin dodanez erantzun itaune orreri, zeuri egitea gurago dot. Zu zeu orrelan iraunduten ba-zara, ta alan be, argiro edo isillean zeure senitartekoak goستن dozuz, argi dago zelan edo alan neurriren baten onartzen dozulako da eta gura dozula azterkar egiazkoa oneri oni begiraz, ain zuzen be, zeure buruari itaunketak egiten dautsozuz. Orduan zegaitik ez dozu onartzen zintasun ta kemen geiagoz zeure barruan zarean baiño bestelango bat gura izango zeunkela; ez zarea aleginduten desbardintza gainduteko arrokeriz ta itsumen ikusguraz zeure bizitzearen berarizko eraz gogor baiesten zarea, eta bizikera orrek —ezeizu ukatu— garaitzaile baten sentikera damotsula.

Nundik dator guzti ori? Bakarrik ezin bizi zarealako beste eraz? Edota ankabernea apurtuta daukon baten lez, ondo ibilli gura izan arren, errenka, ingili-ankala dabiltz eta beraz, zure barruan ez daukozula errurik?

Nik ez dot uste olan, eta eztala olan izango itxaroten dot Bear bada —ta nire itaunegaz jarraitzen nabil-izan lei-

tekela ereduakoago bizitza artu daizun. Baiña zuk ezartzen dozuzan eskakizunak neurri zerbaitean beteko balira, laster ain txilar ziztriñak zeuk deritxazuz arei be, neke aiña ez dabezala balio biziteko olan ain oiturako eredu zuzenbidez. Oiturazko bizitza batek-zeure guraso ta anai-arrebarenak— ez ete dau emoten zorion geiago zure oraingo bizikeratik ateraten dozun zorion iruzurgilleak baiño, berari ezin ukatu ezta begiak idegi, zentzatu ta ikasi barik geratuz?

Ez dakit itaun onegaz urreratzen nazen zure bizitzaren egizko buruaustera. Alegiñak beintzat egingo dodaz. Eta augaitik esan bear dautzut: zorion larregi eskatzen zabiltz. Zuk nai dozuna oiturazko jauntxoan bizikeran ezeunke aurkitu izango ta, orregaitik alegiñez zabiltz beste eraz eta olan begiak idegiten jatzuz. Zer jazoko litzake neurribako eskakizun ori aldenduko ba-zeunke? Jakiña, erantzun zeinke: Eta zegaitik ukatu ta aldendu bearko dot? Nok beartu naike bizitzeari ez eskatzen ainbesterik?

Zorion-naikeri orren ostean, zeuk oartu barik, sinisbage eragille ostendua taupaka dabilela uste dot. Jainkoagan siñisten dozula esaten dozu. Baiña benetan ete da ori? Jaungoikoa ba-da izatez ezin esan aiñako azken zoriontasuna gure gurariak beteten dituan, orain emen lur onetan zorion azkenengo orrexegaitik ukatu ta itzi bear doguz beraz Jaungoikoak nai ez dauzan gauza batzuk, zegaitik ekin ta ekin zabiltz lortzen indarrez zeuganatzen bizi zarean une igarokor oneitan? Zegaitik ezin zeike itxaron eriotzea zeuri eldu arte, zeure bizitzearen egikunde osoa da-eta? Zegaitik ezin zeikez artu zintzotasunean zeregiñ ta eginkizunak eta urkolagun geideaganako otseintzan, eurentan ez aurkitu arren zoriontasun moskorra?

LETONA'K
(Euskeratua)

KOLONBIA'KO ARMERO ERRI ONDOTIK

Mundaka'ko seme, Aita Bollegi'k Armero erri ondolik eskutitz jaikingarri bat bialdu deust, euskeraz, eta an zer jazo zan, berak esaten deusku. Nik bere euskeran, aldatu barik, eskeindu gura deutset "ZER" aldizkariaren irakurle guztiai.

Aspaldiko adiskide ori:

Zer jazo zan Kolonbia'ko Armero errian danok daki-zue.

Andik igaro nintzan egun batzuk lentxoago. Uri orrek ibai bat dauko, Lagunilla izena daukana.

Ibai ori aldatz bera dator Bolkan Ruiz'tik Armero'ra arte. Berrogei kilometro bete bear ditu bide orretan.

Nik Manizales erritik ikusten neban, orain iru illabete, Ruiz'en zuritasun garbia. Orain, oster, mendi baltz legez agertzen jaku.

Joan dan urteko azillaren amairuan gauerdian asi zan dardaraka, trumoi antzeko durunduz, tontorretik izugarrizko suzko arriak goraka botaten. Ur sulfidriko bapora kilometro baten pareraiño igon zan.

Suzko laba goria, mendi goitik bera jaustean, iru eta lau metroko glazialak urte egiten zituan.

Lagunilla ibaiak zazpi metro goraka igon eban, eta ur joanaren indarraz, suzko arriak itzali-amatau barik, lokatzagaz batera asi ziran Armero'rantz narrazten.

Gauerdi illunean ibaiak bere argitasunaz ibai ertzak argitan jarten zituan, baiña bitartean ango pertsonak loak artuta.

Urgeldi baten antzera, eusten deutson orma apurtuten dauenean, alan etorri zan Lagunilla ibaiaren indarra, Armero gaiñera, dana lurperatu arte. Lokatz, su eta izotz artean agertu ziran batzuk, garrasi batean.

Gaur Armero uria illerri baten antzera ikusten dogu.

"Or egon zan Armero". Ogeitaka milla il ziran gauerdi aretan. Baiña oraindiño baltzena entzuteko zagoz:

1949 urtean "Bogotazo" izeneko matxinada jazo zan Kolonbian, eta orduan Armeron gertaera lotsagarri au jazo zan.

Armero'ko jenteak erriko txauburua-parrokoa il egin eban, eta emakume galduak abade jaunaren gorputza lotsagarritz erabilli eban.

Mr. Wiles gotzainak ori jakin eban, eta erriak ez ebala iltzailleen aurka ezer egiten, barre baiño, suminduta zazpi urtetan itxi eban ango eleiza, eta galerazo erri aretara abaderik joatea ezertarako be.

Gaiñera esan eban gotzainak: "au nire zigorra-kastigua da, baiña Armero'ri Jaunaren aldetik etorriko jakon astiñaldia gogorrangoa izango da"...

Oraintsu ni Armero ondoan egon naz. Armero egon zan erritik amairu kilometrotara amerikarrak, menditxo batean, eun karpa-txabola egin dabez ango genteari zerbait laguntzeko...

Gaurtik besterik ez.

BOLLEGI S. J.

GABARENA

Gabarena da osiña sakon sakonena.
Gudearena da karraxi gogor, garratzena.
Euriarena da negar malkorik aundiena.
Gosearena da asarrekuntza mingarriena.

Dana, biotza naikeriz betea dogulako maitetasunezko argi-izpi, tanta barik; bata-beste ez-ikusikoz iraindurik odola ixuriz aberetzen garalako.

Ugaritzen dakusgu malkozko euritea, miserizko izurri, ondamendi bat sortuz mundu zearrezko eriotzadun gosetea.

Danetarikoak gara baña, guztiz urrun, banatuak bizi gara, ogiaren inguruz, norberazko barrutian itunik ta illun.

MUNIATEGI-TAR SABIN

GREZI: IZKUNTZA BATASUNA

GREZI'ko izkuntzaren izkelki edo dialektoetaz mintzatu gintzazan lengo egunean. Grezi'ko izkuntza zarrak bezala euskerak ere izkelki asko dauz. Zenbat? Ez da ain erreza erantzuna. Lau? Iru? Zazpi? Geiago?

Gure izkuntzak zenbat izkelki dauzan esateko jakintsuek ezin batera etorri izate orrek asko kezkatu eta samindu oi dauz gure adiskide euskaldunen artean bat baiño geiago. Ez bedi, arren iñor emendik aurrera keskatu eta samindu, orixe ber-bera gertatzen bait yake jakintsuei elenera edo Grezi'ko izkuntza klasikuari-buruz: zenbat izkelki izan ebazan erabakitzeko ezin daitekezela batera etorri. Lau izan ebazala diñoen batzuek; zazpi beste batzuek; eta badira 16 izan ebazala esaten dabena ere. Beraz, izkuntza batek zenbat izkelki dauzan ezin ziur jakin aal izateak ez dau, iñolaz ere, izkuntza ori baldarra eta moldakaitza danik esan nai. Ausartuko al litzake ba munduan iñor, elenera, erti, filosofi, eta elertirik, eder eta bikaiñenen izkuntza baldarra ta moldakitzza izan zala oiukatzeraz?

Gaiñera, eleneraren izkelki aietako bakoitza, anei izkelkitxoetan zatiturik zegoan; ta egon ere, ibar eta errikka bakoitzak bere izkera berezia izateraiño, zegoan zatituta. Ta orrelako zerbait gertatzen jaku gure euskerarekin ere.

Alatagutziz, bada jakintsu guztiek ago batez, zalantzarik gabe, aitortzen dabena gauza bat: Elenerak lau elerti-izkelki izan ebazala: atik'era, dorik'era, eolik'era eta jonik'era, ta euskerak ere, elenerak bezala, lau elerti-izkelki dauzala: zuberuera, laburdiera, gipuzkera ta bizkaiera.

Eleneraren lau izkelki aiek Kristo-aurretiko III mendera arte irauan eben bizirik eta sendo, izkelki berri bat sortu bait zan mende ortan greziarren artean: "Elenera Batu" baten antzeko zerbait, "Koiné Dialektós", esan eutsoen izkelki berri orri: "Guztien Izkeltia". Izkelti ortatik sortu zan, Kristo-osteko IV eta V mendeetan, "Bizanziera", eta bizanzieratik sortua da berriz gaur-eguneko Greziera.

Elenerako "koiné" itzak, lateraz "communis" eta gaztekeraz "común" esan nai dau: "guztiena". Koiné zeritzan izkelki ura ez zan beraz "elenera batu" bat: ez zan elenera zarraren "izkelki-guztien-naasketa" bat; eleneraz mintzatzan ziran "guztien izkelki" berri bat baizik: "koiné dialektós". Eta ala izan ere izan zan: izkelki ura erabilli bait zuten Kristo-aurretiko III mendea ezkeru, eleneraz itzegiten eben guztiek. Eta, jakiña, izkera berri orrek, lengo lau izkelki zaar ospetsuak il ebazan.

Alderantziz, gure arteko "el batua" ez dala euskaldun guztiak itzegiña izango, "el batuaren sortzailleek berak aitortzen dabe. Itzegiña izateko ez zala sortu esaten bait dabe! Ezta elerti-izkuntza izateko ere! "Administrazioarako" bakarrik izan omen zan sortua! Elertirako ez omen dau balio! Ori, irakurle, "el batua"ren sortzailleek berberaiek diñoen gauza da!

Grezi'ko Koiné nola sortu zan? Iñor oartzeke sortu zan. Ez zan idazle edo izkuntzalari batzuen, edo Akademi baten, edo Agintari ala iraultzalari odol-bero eta buru-ariñ batzuen sorketa izan. Ez zan "naita" moldatutako gauza

izan; iñork nai gabe, iñor oartzen ere ez zala, berez sortu zan Alexander Nagusiaren gudarozteko guda-mutillan artean. Entzun nola eta zergaitik:

Ordurarte, Grezi'ko Uri bakoitza Laterri iarea izan zan beti. Uri aiek, naiz lau edo bost alkartuta, gudara joaten ba'ziran ere, ez zituzten beren guda-mutillak gudarozte batean naasten. Uri bakoitzeko mutillak beren uriko gudaroztean joaten ziran. Ez ziran baiñere Uri batekoak beste Urietakoekin naasten. Alexander'en aitak, Mazedoni'ko Filipo'k, Grezi guzia izkilluz menderatu ebanean ordea, Uri aiei beren laterritza kendu, eta danekin Laterri bat bakarra eratu eban: Grezi; eta arrezkeru, uri aietako mutillak, danak gudarozte batean naasirik irten oi ziran gudara.

Orrelako zerbait gertatzen zan gure artean ere. Españi'k, indarkeriz eta maltzurkeriz Lege Zarra ezereztean, Euskalerrari askatasuna kendo eutson arte, Eusko-Laterri bakoitzeko mutillak beren Laterriko gudari-taldeetan joaten ziran gudara: bizkaitarrak, Bizkaikoetan, naparrak Naparro'koetan, eta abar. Askatasuna kendu eta Euskalerrari Españi'rekin Laterri bakar bat osotuarazi yakon ezkeru, bizkaiko mutillak, Gipuzkoa'koekin, Araba'koekin, Naparro'koekin, eta baita Guadalajara'koekin eta ezoein tokikoekin ere, naasirik joaten dira.

Filopos il zanean aitaren politika-era jarraitu zuan aren seme Alexander Nagusiak, eta Grezi'ko Urietako mutillak danak naasirik joan ziran arekin gudara. Amar urte eta geiago ibilli ziran guate artan, eta gurendaz-gurenda Indo ibaiaraiño iritxi ziran, Ejito, Palestina, Siri, Anatoli, Mesopotani, Iran, Kaspiar Itxasoaren sortalde osoa, Afganistan, eta gaur eguneko Pakistan irabazi ondorean. Amar urteko alkarrekingo bizitza artan, eleneraren izkelki guztietako mutillek, sortu zuten uste ere gabe, alkarrekin mintzatuaz eta mintzatuaz, izkelki berri ura: Koiné.

Noiz sortu zan? Ez da erreza erantzuna. Josu aurretiko 323'garren urtean il zan Alexander Nagusia. Aren gudarozteko buruzagiek alkarrekin asarretu ziran eta beren artean zatitu eben Alexander'ek irabazitako lurralde zabala. Orduan, gudariak bere errietara itzuli ziranean, zabaldu zan Koiné.

Dirudianez greziarrek baiño maitasun geiago dautsagu euskaldunok gure izkelki zaarrei. Amar urtetan sortu zan Koiné. Amar urte baiño askoz geiago, baita eun urte baiño geiago ere, egon dira alkarrekin naasirik Españi'ko batallioetan gure mutillak baiña naiz alkarrekin euskeraz itze-gin, ez da gure mutillan alakerrizketa orren altoan euskalkoinerik sortu. Bakoitza bere izkera mintzatuaz joan zan batallio aietara, bere izkeraz mintzatu zan an beste izkerako euskaldunekin, eta bere izkeraz mintzatuaz itzuli zan errira. Koinerik ez zan mutil aien artean sortu; ezta "dana-euskaldun" ziran karlatarren guda-taldeetan ere, naiz karlatarren gudateek Alexander Nagusiarenak baiño iraute luzegokoak izan.

LATIEGI'TAR BIXENTE
(Jarraituko dau)

SHAKESPEARE ETA BATUA

MENDIGUREN'EK EUSKERARA SHAKESPEAREREN ANTZERKI BAT ITZULI DAUALAKO, BERE ARGAZKIA AGERTU DA DEIA'N, ARTIKULU BATEGAZ. ZERGAITIK ORRELAKO ZARATAK? BATUAN EGIN DABELAKO ALA?

AITA LARRAKOETXEAK 37 ANTZERKI ITZULI DITUZ, ZEANURIKO IZKERA EDERREAN. AREN ARGAZKIRIK IKUSI DOZUE INON?

BATUAREN KURPILLA BUELTAN DOA. GAINIAN BA'DAGO, AZPIAN BE EGONGO DA, MUNDUA AURRERA DOA-TA.

* * *

DEIA'n agertu zan artikulua Azillaren amarrean, sekulako goraltzak egiñaz, Shakespeareren antzerki bat euskarara itzuli dabelako. Lanean ari dana goraltzea ondo deritzat; baiña guztiak neurri bardiñean, lanaren proporziñoan.

* * *

Aita Larrakoetxea'tar Bedita Yon Zeanurin jaio zan Altxagutxi baserrian, Undurraga Goiko auzoan. Gerratean, 1937, Inglaterarra joana eta andik Ameriketara, Uruguay eta Argentina'ra.

Erbestean egon da exilatua 35 urte mando, 1972'arte.

Urte aietan euskeratu ebazan Shakespeare'ren antzerki guztiak: ogeita amazapi antzerki: komediak, odol-antzerki edo trajediak eta egintzak edo dramak. Danetara 37.

* * *

Danen artean bost liburu mardul osotzen dabez. Liburu bakoitzak ba-dau iztegitxo bat ere, itz eta barba zailak eta gaitzak argitzeo, irakurtzea errezteko.

Larrakoetxeak egin eta KARDABERAZ'ek argitaratu, 1974'tik 1976'era. Onela diño liburuen azalpenak: W. SHAKESPEARE'REN ANTZERKI GUZTI-GUZTIAK - 37-EUSKERAZ.

1.722 orrialde aundiak osatzen dabez danen artean.

Bizkai'ko Euskeran: Arratia'ko Zeanuri'koan; berak, egilleak, amaren aotik ikasitako euskerean. Kontuan izan Shakespeare'ren antzerkietan 20.000 itz ezberdiñak dagozala. Orrek danok Euskerara itzultzeko euskera barru-barrutik jakin bear; bai inglesa be.

Aita Larrakoetxeak Shakespearek idatzitako liburuak erabilli dituz eta ez gerora konpondutakoak. Egillearen liburu jatorrak, andik euskerara itzultzeko.

* * *

Bat itzuli dauanari egunkarietan idatzi bat eta bere argazkia eskeintzen ba dautsoe, kontuak atara Larrakoetxeak zenbat merezi dabez. Ikusi dozuez iñon?

Neuk ez sekulan be.

Orduko gizon "prestua", batek beintzak, esan eban ze, bizkaieraz egonik eta euskera zaarrean, ez ebalaitaterik be merezi. Orra zelako diferentziak batean edo bestean egin. Baturik egiten ez ba'dozu, ez daukazu urtenbiderik.

* * *

Baiñan, egon lasai, kurpillak, erruedak, buelta osoa emongo dabenean, orduan izango gara geu garaille. Asi

dira esaten, Batua sortu eta mamitu ebenen artean, euskera ori praille eta abadeentzako laga bear zala eta gaztediak euskera errikoia babestu.

Aldaketea asita dago.

Egon lasai.

Eusko Jaurlaritzak amua iruntsi eban, tragau eban, asiera asieratik Etxenike eta konpafiñakin, Mitxelena aolulari eta konseju-emaille ebela.

Bankuek eta Kapitalismoa sartu da joko berean.

E.A.J. be larri dabil; arriskuan.

Elizea falta da: amauaren karnatari usainka dago. Eldu be, eldu dautso karnateari. Atxeak liturjiko liburuetan ez dauz sartu orandiñok; beste gauza batzuek, bai. Elizearen inguruan dabilzanan atxeak jaso dabez (iraultzaren ikurrin), naiz-eta bizkaieraz jarrai.

Eleiza osoak karnata eta amua jango dabenean, orduan kopurua beteko da: Eusko Jaurlaritzak, E.A.J., Kapitalismoa eta Eleizea, orra danak Batua gurtzaille eta Batua erribitzaille. Tronpeta jotzeko garaia: asiko dira ezkerretik iraultza berria eskatzen: astakeri bat izan dala Euskereari orrenbesteko zamak lepoan ipintzea, il zorian dagoenean. Askatasuna behar dala.

Errestasuna dala, erriaren alde jokatzeko bide bakarra.

Euskera errikoia bear dala.

Zamak lepotik kendu bear jakozela.

Askatasunaren izenean.

Erriaren izenean...

* * *

Eta orduan zer esango debe Eusko Jaurlaritzak, Aldundiak, Udalak, Kapitalismoaren Bankuak eta Aurrezki Kutxak, E.A.J.'k, Eleizeak eta bere inguruan dabilzanan erakundeak...?

Gastu aundiak eginda dagozala eta orain ezin dala atxerik kendu, ez eta N eta LL ipintzen asi, bizkaieraz eta beste euskal izkuntzetan idazteak eragozpen aundiak ekarriko dauzala... Eta abar, eta abar...

Batua sartzen lan egin dabena, eurok artuko dabe Euskera errikoia ikurriña, erreztasunaren ikurriña, Batua aurrera, iraultzaren ikurri bezela.

Itziko gaituez baztarrean eta eskuetatik kenduko gure ikurri au.

Ondo dakie jakin Batua astokeriz osotuta dagoala.

Eta beste bateri leporatzeko zain-zain dagoz... Eta au amatzeko ez dago igarle izan bearrik: sudur-gaiñean begiak zabalik eukitzea, naikoa da.

* * *

Gure aita Larrakoetxea'ren lana or dago liburutegietan zabalduta, geiegi ez bada be; baiña, ez dot uste Ikastola Nagusietako liburutegietan egongo danik. Orra, ba'legoz, linguistika ikasten ari diran bizkaitarrentzako gai ederrak Shakespeare eta Zeanuri'ko Euskereari buruzkoak.

Milla eta zazpireun orrialde aundi euskeraz Shakespeare'ren netik itzuliak.

ARRINDA'TAR ANES

1985'KO EKINTZAK

Agur bazkide maiteok:

Emen gaituzue barriro, beste urteetan lez, erakunde onen igazko gora-beerak zuei emoteko gerturik, eta beti oi izan dogun lez, asi gaitezen euskeraren irakaskintzari dagokiona azaltzen.

IKASTAROA

Azken urteotan oarturiko jokaerea, igaz be izan dogu, au da, ikasleen kopurua gitxiagotzen dala, baiña gure eritxiz, badirudi gitxitze ori zeozer gelditu dala, eta onek neurri baten poztuten gaitu. Aurten 210 ikaslek izena emon dabe 1985-1986 ikastarorako.

Igaz be, aurreko urteetan legetxe, Udako Ikastaro Laburra atondu genduan Garagarrillea'n, eta 45 bat ikasle izan genduzan. Gitxi gora-beera lengo urteetan lez.

Alkarrizketa-maillak be oiko arrera onaz jarraitzen dabe.

IPUIN-SARIKETEAK

Aspaldiko oitureari jarraituz, udabarrian Ipuin-sariketara dei egin genduan, eta izan be, azken leiaketa onetan, ipuiñak naikoa ugari izanez gaiñera, ontasunari buruz onak izan dirala esan bear dogu.

Epai-maikoak Orrillea'n batu ziran, eta eritxiak emon ziran urrengo gaiok ainbatuz: asmamena, aria, joskerea, idazkerea, iztegia ta aditza. Ona emen sarituen izenak:

1'go saria: Goikoetxea'tar Iñaki.

2'gn saria: Bergaretxe'tar Yon Yoseba.

3'gn saria: Zubikarai'tar Augustin.

4'gn saria: Argintxona'tar Anastasi-Matai.

Ipuin geienak bizkaieraz idatziak izan dira, noizean bein, gipuzkeraz idazten badira be. Baiña gure atsegin andirako, ipuin guztiok euskera biziz idatziak izan dira.

Aurten be, baiña gure udabarrirako egitekoak ugaritu izan diran ezker, Ipuin-sariketea gertatuko dogu, baiña udabariaren orde, udazkenean egitea asmatzen dogu. Itxaropenaz gagoz aurten be igazko beste ta ain onak aurkeztuko dirala.

EUSKAL ASTEA

Badirudi, ospakizun onek be arrakasta andiaz jarraitzen dauala, eta igazko arrera ta erantzuna ikusirik, aurten be, beste Euskal Aste bat ospatzea asmatzen dogu.

Igazko Euskal Astea Eskolapiotarren areto txukun eta egokian gertatu zan, eta aurrera joan baiña lez, zillegi deritxat, agirian, Bilbao'ko eskolapiotarra gure eskertasun beroa emoteari.

Itzaldiak Orrilla'ren 6'gnetik - 10'gnera gertatu ziran arratsaldeko 8'tan. Izlariak eta gaiak oneik izan ziran:

Lenengo eguna: Puxana'tar Pedro - Bizkai'ko Foruari buruz.

Bigarren eguna: Arijita'tar Adolfo - Joskerea Bizkai'ko ta beste eusk.

Irugarren eguna: Etxenagusia'tar Karmelo - Elerti-ikasketarako lorategiak.

Laugarren eguna: Olazar'tar Martin - Bizkaieraren lutelestia.

Boskarren eguna: Berrojalbiz'tar Julia - Ikastolak Bizkaia'n.

Eguraldi euritsu ta otza izan arren, jendea polito etorri zan, eta azaldu ziran gaiak entzun-naiez beterik jarraitu eutseen. Itzaldi bakotxaren ostean alkarrizketea izaten zan. Jendea pozik azaldu zan, eta gure ustez, aurten be zudu andiz etorriko da. Ia aurten igaz baiña entzule geiago azaltzen dan.

Aurten ospatuko dan Euskal Astearen gora-beerak, oi dan lez, bere garaian jakiñerazoko dautsueguz.

EGUTEGIA

Aurtengo egutegia igaz gertatu genduan, eta oikoa dan lez, Bizkai'ko Aurrezki Kutxaren diru-laguntzaz. Egutegi onen agertzeak poz andi-andia amoten dausku, milla ta milla eusko etxetan bizkaiera garbi ta biziz, labor bada be, egunero euskeraz zeozer irakurriko dala pentsaten dogunean.

Egutegi ori Martin Olazar'en zuzendaritzapean burutu da, eta lankideak oneik izan dira: Zubikarai'tar Augustin,

Bilbao'tar Joan Erramon, Arrieta'tar Nikola, eta Retolaza'tar Joseba Andoni.

Aurten be, Jaungoikoa lagun, datorren urtekoa egingo dogu.

“ZER” ALDIZKARIA

Olazar'tar Martiñ'en zuzendaritzapean, utsik egin barik, agertu zan igaz bizkaieraz argitaratzen dan aldizkari bakar au, eta uste dogu benetako lan itzi-eziña egiten dauala, gure euskereak bizirik iraun dagian aaleginduz.

Niri ez dagokit aldizkari oneri buruz eritxirik emoterik, ori zeuek, irakurleok, epaituko dozue.

Aurten, sortu zanetiko 10'gn urteurrena beteten da, eta au dala-ta, oroigarritzat, lankideen lagun en goratzarrez,

ospakizun-batzar batera bere garaian deia izango da. Uste dogu, batzar au udea amaitu baiño len egingo dala.

LAGUNTZAK

Bazkide guztiak urte-saria ordainduz, aurrera joteko lagundu dauskue, baiña oiko laguntza onezaz gaiñera, ezin dagikeguz aipamen bereizi barik itzi, Bizkai'ko Foru-Aldundiaren eta Bizkai'ko Aurrezki Kutxaren laguntzak.

Diru-laguntza oneik dirala-ta, euskal jakintzaren aldeko gure asmoak aurrera eroateko gai izan gara, eta aaleginduko gara diru orreik biderik egokienean eralgiten.

ZUBIRI'TAR INAKI

KILI-KILI 1985

1985'garren urtean Kili-Kilik betiko bideak erabili ditu: ikastaroa, aldizkaria, Kili-jaiak, Kili-Txortako argitalpenak, sariketak-eta abar.

Ekintza barri bat ere sortu dau: “Udako 1.º ikastaroa”. Gaurko gaztetxoak 14-16 urtera eldutean euskerea bertanbera izten dabela-ta ikastaro bat egitea bururatu jakon, euskerea ERABILTEKO ikastaro bat. Udan, uztailla'ren 15'ean Derioko Seminario izan zaneko etxean 50 neska-mutil eta ogetaz monitorea batu ebazan astebeterako eta len-esperientzi bat izateko.

Arrakasta biribilla izan ebala esan daikegu. Erderea dariola etorri ziran euskaldunak euskera ezpanetan ebala joan ziran andik etxera gure gaztetxoak Izkuntza azken baten oitura bat da; oiturea ez galtzeko erabili egin bear da.

Pozarren ibilli-ta gero negarrez joan ziran. Azken agurra egitean batek eta bik baiño geiagok negar egin eben. “Egun superzoragarriak” igaro ebezela esango dabe gero-

ko kartetan. Gaztetxuok eurok eskatuta barriro batu bear izan genduzan andik ille batzutara egun birako, Oromino'ko bazter politean. Esperientzi ederra, sakon aztertu bear-ko dana.

Beste ekintza ederra eta barria-edo “Kili-Kili Ezetz-igarri” sariketea izan zan 1984 urtean asita 1985-n amaitu zana. Ekintza oso ederra eta polita. “Nik Zuri, Zuk niri” izeneko orri biñoit bat zabaldu zan ume askoren artean Bete egienak, saria. Au da: bizikletak, liburuak, gozokiak... eta dan-danentzat Kili-Kili aldizkariaren iru illebeterako suskriziñoa, duan. Orriok betetea ez zan izan irakurgaiak gero euren eskuetara eldu erazoteko atxaki bat baiño. Ume askok etxean ez dabela aldizkaririk ez irakurgairik jasoten eta, geuk bialdu bearko geuntsela erabagi genduan.

8.325 umek erantzun eutsoen Kili-Kili'ri Sariketa onetan parte arturik: 2.460 Bizkaitik, 2.101 Gipuzkoatik, 1.152 Arabatik eta 2.612 Nafarroatik. Arrera obea ezin!



BIDETIK AMESETAN

Zorionsua benetako olerkariak dituan erria: Naiz-ta menperatua izan, leentxuago gerotxuago, urratuko ditu lotzen daben kateak.

Gure aberriak ba-dau gizaseme loak artuak iratzarri dagikezan olerkari sutsuen bearrizana. Olerkarien lanak bearrezkoak doguz izan bere, geure erri au zuzpertzeko ta elederra sendatuz izkuntzea birrindartzeko.

Ugariak ez doguzanarren, olerkariak, beti jairo daroaz, or-emen, banaka bat; batzuk onak, beste batzuk ez ain onak eta baita, agertzen dira, olerkaritzakoak edo sasi-olerkariak be.

Sarritan, ain onak ez direan olerkariak be, goirengo maillakotzat goretsi oi ditu erri-alderdien batek, politikeak eraginda, euren xedeen eragingarritzat gogaikarriro erabiliz. Geurean bere ba-dira olango olerkari batzuk; eta euren ez eritxirik ez dabenak ugari direanezkerok, bestien esanetara makurturik, olerkari ontzat etsi daroetz sasi-olerkariak, gure elederraren kalterako.

Olerkari batzuk (olerkariak?), zegaitik edo agaitik sarien bat irabazi izan ba'dabe, antxe, bertantxe, eraiñotz-zarten artean lo, geratzen dira bidez edo bidebakokeriz irabazi izan daben sariari deutsela, puztuta. Loak artzen ditu ta ez dira barrero iñun agertzen. Olakoak ez doguz olermen-ikutuen bat nozbait izan eukienak baiño.

Danetariko olerkariak doguz, ba, Euskalerrian bere: onak, txarrak, ez ain onak eta erdi ortik-emendikoak.

Gure Zubiri'tar Iñaki bai, ba-dogu, benetako olerkaria. *Bidetik Amesetan* olerki-idazti ederra agertu izan dausku, oraintsu, Oiñatibia'tar Manu'ren itxaurre egokiaz, Euskerazaintza'ren ardurapean.

Olerkari barrukoia dogu Iñaki. Biotz-ondo sakonez, kadentasun gozatsuz eta berarizko samurtasunez ontzen daki bere olerki mamintsuak. Olerki uts-utsak doguz, ba, onen neurtitz guztiak. Ezbear audien gezi zorrotzak biotza zauriturik-edo, bere gogo minberearen barru-barrutik urtendakoak doguz, izan bere, Zubiri'ren olerkiak. Izadiaren ikutu gardenak bere barru-zauriak minberaturik ots gozo ta biotz-eragingarriak ateraten daki bere lirearen ari mengalai. Aditu dagigun au, **Itsas-ertzean** deritxon olerkian, gogoaren barru-barrutik urtendako aapaldi samur au:

Etsipenaren atzapar illunak ozka dagie nire biotzean, bakartasunaren itxaro astunak itoten nabe etengabeko utsean. Galdu egin yataz alaitasunak lorak antzera negu ekaitzean, ta loaldiko besarkada bigunak igesi yabiltaz gau illunean.

Auxe bai, ba-dala, benetako olerkia! Gogoaren tamalatasunak bultzaturik, bere biotzaren aririk mengalena erausitako mintzo kaden, gozatsu ta zolia.

Olerkari onek bere olerkieri ezartzen dausien olermen gozatsuak gogoaren zabaldiak-zear eroaten gaitue ameseko egaztada gardenetan.

Aukeran, luzetxuegiak bai ba-ditu olerki batzuk; baiña bere etorri ugariaren errua danezkerok, parkakorra daiteke, olermen apurrik dauan irakurleari ez leuskioe gogaitik eragingo-ta.

Besarkadarik anaiakorrena, ba, Iñaki, adiskide zintzo ori, agertu izan dauskuzun olerki-liburu barrenkoi, gozatsu ta samur orregaitik.

AURRE-APRAIZ

POZTU ZAITEZ NEUGAZ

Poztu zaitetz neugaz, poztu zaitetz Udabarri, aurrez aurre, mundua argiz alaitu daigun ta, bertan, biotz oñarri sendoak ezarri betikozko lora usain atsegiñez, kutun.

Itzartu zaitetz neugaz batera Udabarri ta, bizitzaren portuan egokitu zaitetz neugaz batera, izadiari darion atsez, berein goramiñezko eskeintzaz, zoragarri!

Itzartu neugaz len-bait-len, gizona esnatuz, mundua osotoro odol-uztu baño leen, itzulera bako bere zeintasuna galduz.

Oñarritu zaitetz neugaz argitze zabalez, olako ixurtzerik gerta ez dedin emen mundua ondaturik sekulako sekulez!

MUNiategi-TAR SABIR

EUSKEREARI TRABAK...

Euskereari buruz be ezin daiteke norbere eritxirik idatzi, antza, emengo egunkarietan.

Lantxu bi bialdu nebazan, leengo baten, abertzaletzat dabillan izparringi batera eta bata ez eban argirik ikusi eta, bestea, eslearen orrazian zatia itxita agertu izan zan.

Mingarria izan oi da, idazlearentzat, gogo guztiaz idazten ekin eta norbaitzuri gogoko etxakielako lanak bazterrerera jaurtzea edo kimauta agertzea.

Izparringi orrein jokabidea parkagarri litzake euskera gaiztoz idatzitako lan ganoka asko argitaratuko ez ba'leukiek; baiña erri-euskeraz eta zuzentasunez eta ondo idatzitako lanak aintzat ez artzea samingarria dogu benetako euskaldunontzat eta kaltegarria euskerearentzat, berarentzat.

Aundia dala uste dot, "el batua" kaltegarri ori dala-ta, bizkaiereari artu izan dautseen gorrotoa, euskal-senaren tangadarik ez daben euskaldun motzok. Jaikin begie, ba, orrein alegin guztiak gora-beera, aurrera egingo doguna, indar guztiakaz, geurea zaintzen. Eta, begoz, zigur, erriak bere euskera jatorra egiten jarraituko dauala lorrintzaille orrein alegiñak gora-beera.

Iñori kalterik ez eta euskereari mesede dagitsoen idazlanak bazterrerera jaurtitea, mingarria baizen kaltegarria dogu, ba, gure elederrarentzat eta Euskalerrarentzat be.

Demokrazia, edo dana dalakoa, eldu izan zanean uste genduan euskera-arloan ez genduala eragozpenik izango; baiña, geure artean daukaguz idazkera ta euskal esakera askok min dagitsen *jakitunak*.

Ez dot uste ez baztertu ez kimatu bearrik ebenik nire lanak, idazle ta olerkari biren goramanerako ziran-da. Baiña, erri-euskereaz diarduen olerkari ta idazleak barik beste batzuk dira, antza, goretsi ta lurrun gozatsua egotzi bearrekoak. Olango egiñen kaxkarrakaz ez dauskue, ba, adorerik gitxituko erri-euskerea lantzen jarraitzeko; eta, geure arloan ekingo dautsogu, azkortasunez eta abertzaletasunez, geure-geurea dogun benetako euskera jatorra sendatzen eta zabaltzen. Batasunaren izenean, sustarrik ez senik ez dauan beste izkelgi ganorabakorik ez dautsogu ezarri gura, ba, benetako geure erri-izkuntzeari. Ta, zigur nago, eragozpen guztiak zapaldurik erriak garaille urtengo dauana, bereaz.

AURRAITZ

BILBON LUR-AZPIKO TREN BIDEA

Basaurin asi ta Algortara eiten dabe tren bidea, ta Lutxanatik Santurtziraño, egingo dabe bestea. Lur-azpikoa dogun ezkerro, lengoa baño ohea. Ori dala-ta, zorabiauta, ikusten dogu jentea.

Euskalduna da lan egiteko ta lan gaian, ausartua. Esan daikegu larri dagola, nun sartuko daun dirua, ta sartu ezik, uste, egingo yakola, eskuan, sua. Laster egingo dabe "metroa". Ortako dabe burua...

Gure Euzkadi aldatu einda; len, batez be, lugiña zan. Industriala eginda dago, burdiña, bai dau, barruan. Lengo bei ta txal, ardi-bildotsak, aldatuz, dabil burdiñan.

Aurrerapide deritxo oni t'au da naguzi, munduan.

Onerako da? Txarrerako da? Euskerak asko dau galdu. Kanpotar ainbat etorri yakuz, t'ez deusku orrek lagundu. Gu, euskaldunok, itxartu gaitetz, kontzientzia astindu. Ekin ta ekin, euskeraz egin, ez gagizela atzindu.

Beste maillatan irabaz dogu, diruan, bai, aberastu. Lenago baten lortu genduan gure bizitza erreztu, eta erriak, zer esan be, ez, dira apaindu t'edertu. Azpiko trenak ondiño obe, gaizala danok bizkortu.

Azpiko trena izango yaku, aurkitzen diran onena; joan etorri arin eiteko, zorrotz eta bizkorrena.

Galdu genduan Trespadernetik len etorteko zan trena. Baiña orain, bai, izango dogu etor leiken ederrena.

Orain, bai, aize garbi garbia sartuko yaku agoan. Orain, bai, ibil egingo gara ta buztiko itxasoan. Orain joango gara poz-pozik ta egon itxas ondoan. Artuko dogu itxas yodoa, azalan eta kolkooan.

Ezin pozago gagoz trenagaz, martxan ipiñi ezkerro, ta ondartzara joango gara, sarri, eiten badau, bero. Gogoak emon t'aztia izan, gero, udan, egunero. Eskerrak trena lur-azpikori! Aundia dogu au, gero!

MATAI ARGINTXONA

DIRU PALTSOAK

DIRU PALTSOAK

Oto kartzelan egona dogu eta an barruan egin ebazan berealdiko ezaupideak. Aietako bat zan Krispolo jauna.

Krispolok esku-beatzak ariñak oso: iñor konturatzeke ateratzen ebazan praka-poltxikoetatik bertan gordeta egozan diruak. Ura erreztasuna eskuetan. Zoragarri!

* * *

Goiz batean, Donostia'ko kai inguruan, orra or nun datorren Krispolo karrerako automobil gorri aundi batean.

—Kaixo, motel.

—Kaixo.

—Nundik nora, Oto?

—Emendik ara, Krispolo. Eta, i?

—Andik ona.

—Au dok kotxe ederra, Krispolo. Nun arrapatu dok?

—Arrapatu? Ez, mutil, neure diruekin ordaindu joak.

—Ire diruekin? Ez joat sinisten.

—Sinistu bearko, alan dok eta.

—Orduan, ori ala ba'da, diru paltsoekin ordaindu dok.

—Zoroa naizela usten al dok diru paltsoak arrapatzeko, ele...?

ARTZAINZA: Trikuarriak, arrespillak eta zut-arriak

Artzaintza aspaldikoa dogu gure artean (bost milla urtekoa gutxienez); baiña, gaur egun ez dau oraindik bere garrantzirik galdu.

Trikuarriak (dolmen), arrespillak (cromlech) eta zut-arriak artzaien lanak dira. Eneolitos edo Tupiki Arokoak dira: brontze garaikoak, alegia. Brontzea arria baiño gogorragoa da eta orregaitik gizonak arria itzi eta brontzeari eldu eutzon bere armak eta lanabesak egiteko. Tupiki edo brontze aroan gertatu zan, artzaien denboretan. Artzaintza sortuta gero.

Millaka urteetan zear gure aurrekoek basoetako piztiak eta abereak arrapatzen ebezan jateko eta bere gorputza jazteko. Gerora abereak arrapatu eta ezi egin ebezan (txakurra, ardia, auntza, beia, zaldia) bere probetxurako; orrela ez zuan basora eta mendira joan bearrik piztiak arrapatzeko, etxean eukazan abere orolik... Ordurarte eiztaria zan gizona eta eizetik bizi zan; gero artzai egin zan... baiña eizeari, ez dautzo sekulan itzi. Ez gaur bertan ere. Nere lagun batzuen baserrian, erritik oso urrun dagoena, beiak daukez ikullua bete, larrabeiak mendian eta ardiak; lau gizaseme dira eta lau eskopeta daukez, bakoitzentzako bat: semeentzako bi tirokoak eta aitarentzat eta osabarentzat, bost tirokoak...

* * *

Euskalduna artzai biurtu zanean, orduan asi zan batetik bestera bedar-billa, bere abereak aurretik ebazala. Ibilkera oietatik sartu ziran gure errira trikuarriak, arrespillak eta zut-arriak. Eiztari bakarrik zanean, kobeetan bizi zan eta leizetan bertan edo bere inguruan eortzen ebazan bere ildakoak. Gero, barriz, artzaintzari eldu eutzonean, bere bizi-tza mendi-garaietan igaro ten eban eta ain goeitan sortzen zitun ildakoak trikuarrietan eta arrespilletan. Trikuarrietan osorik eta egozan lez ipinten ebezan ildakoak; arrespilletan, berriz, lenengo erre eta gero errautsak arrespillen erdian egindako zulo batean sartu, lurrezko ontzietan eta ezer gabe ere bai.

Trikuarri eta arrespilletan gauzatxo asko arkitu dira: lurrezko ontzi-zatiak, ikatza, ezur erdi erreak, errizko tresnek, aizkora txiki-txikiak kutun bezala erabiltzekoak eta abar.

Oraingo artzaiek lengo artzaien tokietan bizi dira.

Toki berberetan. Joxe Miel Barandiaranek diñonez, bazan artzai-txabola bat (Aralarren uste dot) trikuarri baten gaiñean egina.

ARRINDA'TAR ANES

UNE, TINI...

Bakoitzarekiko bizigune ezbarðiñez une bakoitzari bere alangoa dario, bizitza zear poz-atsegin edo, samiiñez zorituriko ainbat gertaera, ondorio.

Ordua ordu da, ta, minutua minutu... danontzako bardiña bere iraun-aldia ta, bizidun danok neurri beraz neurtzen gaitu leporatuz eriotzazko elburu larria.

Bai, lagun, zuk nik negar dagidan bitartean barre dagizu bizikiro zoriontsu, alai edo, alderantziz negar, nik barre egitean.

Une, tini..., Gure izate onen barruan... Zenbat eriotasunezko zauri ta bizigai, gure aldiberazko ibilizko munduan!

MUNIAITEGI-TAR SABIN

AURRERAKOIAK ETA ATZERAKOIAK

(Orain amar urte burruka bizia egoan gure artean. Orduko itzak eta berbak dira onek. Arrezkero ez da gauztia aldatu, okerrera ez ba'da. Ona orduko berbak.)

* * *

Atzerakoi eta aurrerakoi aspaldian erabilitako berbak dira. Baiña, bi taldeetan jendia banatzea, aspaldiko xistima da, antxiñakoa: geu aurretakuak, gure etsaiak atzeratuak.

Gurekin ez dagozanak, orrek danok atzeratuak dozak; gurekin diranak, orrek danok, aurreratuak dozak, kangrejuen antzera atzeraka ibiltzen ba'dira be.

* * *

Atzeraka ibiltzea da benetan, esate baterako, izki alperrikako bat, atxea, indarrez erabili eraztea. Nai ba'dozu eta nai ez ba'dozu. Berreun urte badira zenbait euskaldun idazleek baztarten asi zirala. Oietako bat zan Aita Kardaberaz.

Eta, zergaitik kendu eben? Alperrikakoa zalako gure artean.

Atxedunak berreun urteko saltoa egin dabe atzeraka; baiña, atxea artu ez dabenari, ao betean, *atzerakoi* esaten deutse. Izen ona galdu nai. Eta eurari esan baiño lenen, eurak esan berba zantar ori.

Eurak dozak *aurrekoiak*, berreun urte atzeraka eginda gero be.

Ori dok aurpegia ori.

* * *

Guda negargarri bat sortu eta gero, euskaldun idazleak bi zatitan eginda gero, *batasun* berbea lau aizeetara intzirika zabaldu.

Berba bat, besterik ez.

Izena ez da izana. Baiña, onek izena erabiltzen dabe, izane tapatzeko. Berba, itza eta izena izanaren estalgarri. Esku batekin erlauntza zirikatatu eta besteagaz keia bota erleeri.

Batasuna apurtu eta ondoren batasunaren itza makillamuturrean jaso ikurrin baten antzera. Beste aldetik barriz, gurekin ez dagozanak txistuz eta iraiñez bete eta batasunaren aurkako salatu.

Salatu bein eta barriz.

Salatu eten barik.

Salatu berbaz eta idatziz.

Salatu, salatu eta salatu...

Aizkenerako ainbeste alditan esan dana eta entzun dana, ontzat emon eta egi bezela artu gizarteak. Guzurra bota borobil-borobil bein da berrero eta azkenerako egi argizat artuko dautzue erriko tontolapikuak, Orren antzera esaten eban Hitler jaunak.

Makiñatxo bat jarraitzaille ba-dauz jaun orrek geure artean.

* * *

Guzurrezko eta gizatarreko erasoak bere frutua emoten dau, esan dogunez, amaika inusente zoratuz eta bereganatuz; baiña, bestelakoa ere bai, ardiak ez diranak edo aprobetxategiak ez diranak, alkartzuz... Akuilluagaz zirika-

tuak izan diranak alkartzuz geranean, geure indarra agertzen dogu, eurok uste baiño aundiagoa.

"Atzerakoiak", atzera joan ez diranak kangrejua lez, aurrera doaz euren bidean, mordo ederrean, aginpiderik ez ba'dogu be gizarte onetan.

"Aurrerakoiak", atzera salto egin dabenak, sakabantzuz asita dagoz, eurak aurrera doazela ots egiñaz, euren indarrak beti bistan ipiñiaz eta lau aizeetara zabalduaz, zenbat diran egunero kontatuaz... euren buruak konbenzitu naiz edo...

(Nik au idatzi ezkerok diru asko lortu dabe, indarra gizartean ere bai, euskal gobernua, kapitalismoa eta abar ere euren alde dagoz; baiña, euron artean burruka asita dago. Itzala. Kojo dabilenak, kojo ipintzen ditu bere inguruko guztiak.)

* * *

Bitarte orretan zubigilleak agertu ziran. Zubiak zertarako? Nundik norako? Zubia bera artungo genduke burrukaren elburu. Zubiaren nagusitasuna burrukaren elburu.

Zubia egin bearrean, oba zuloa tapau. Lana egiñaz. Lana eginda zuloa tapako dogu danon artean. Utsunea bete; zuloa tapau.

* * *

Onk zubigilleok orain amar urte agertu ziran. Gaur egungo zuloa amiltegi biurtu da.

Euskal arloa legor eta siku dago. Gozobako lurra. Giroa aldrebesa. Solo elkorra.

Bi idi lanerako, biarrerako, uztarpe batean: bata eskerretik eta bestea eskubitik. Bien artean irikitzen da ildo lurrean. Biak aurrera ba'doaz bai; baiña, bat nagusitzen ba'da eta bestiari ostikoka egin, zer lan arraio atarako da ekintza orretatik?

Zertan gabiltza? Euskeraren onerako lanean ala euskeraren bidez geure buruen nagusitasuna agertzeko? Geure nagusitasuna beste guztieri indarrez burutik beira sartzeko?

Negargarriak gara. Era onetan lana egiteak antzutu egiten gaitu. 1975 garaiko arazoetan nabil. Gaurkoak guretzako okerrago jarri ziran, ipiñi ziran. Ez zan arritzeko Zeruko Argiak onelan idaztea (7-VI-75):

"Villasante... (eta abarrek) ez dabe lanik agertzen...".

* * *

Aurrerakoiak edo atzerakoiak, guztientzako da giroa eskasa, gaiztoa eta txarra. Ala izan da amar urte onetan. Arrezkero sortu dira idazle barriak batuen inguruan. Baiña, onen lanak Afrikako Bantuen atsa dariola diño jaun ospetsu batek Gabon inguruko DEIA batean. Jaun ori ibilli zan Batua sortzen eta idazleak egin ditu Bantuen antzeko. Ori dok ona, ori! Orretarako ainbeste zarata eta ainbesta okerkeri...!

Bearrezkoa dogu geu alkartzuz, geure artean giro ona lortzeko. Onetan ZER'ek biar ona egiten dau. Zorionak.

1986'ko Urte-barri egunean.

ARRINDA'TAR ANES

BAKARTADEA

ZER DAN

Besteengandik gogoz aldentutea ez da bakarrik bakartadea. Izan beenen gorputzezko baldintza ezta osoro. Jaurlaritza osozkoaren oraingo kaltetun batek diñoanez: "Soviet agintaritza bidez gaur jaurleri agintariak almen eskubidea dabe ta erabili be. Bateren batek bere gogoaren bakartadea gura ba-da ez dausie itxien; agintari orotari-koek ez daute onartzen.

Zer esan gura dauan bakartasunak niri itaundu dausten lez ta neuk neure bakartadea bearizanetan gogartu ta ausnartu dodan lez, sinisterra eldu naz bakartasunaren onura ta laguntza garrantzidun bat dagoala norberaren nortasuna billatzean, gai oneiri itaune emoteko alegindutean: *Nor naz ni. Nok diño ni nor nazela.*

* * *

MOZORROAK

Guztiak eristen dabe zu, ni ta besteak itxureak adieraten dauana gareala. Bai erraldioen zeregiña iñoren nortasuna argitsea. Teleikuskiñan agertzen diran bi edo iru diridizkarak, esaterako adibidez, ausartasun, kemenaren edo lillugarriena, erraz aurkitu ta ezautzen doguz. Izan be, idazlearen indarra dago norbaiten nortasuna adierazo diridizkita itxuralde be geiagotuz bearbada bi edo iru otsein lagun itxuralde alboan ipiñita.

Baiña besteai edo gatxago geuri miragarri mota ori adierazoten asten ba-gara, giza-gogo-arima deabru bidez aldatzen da nortasun neurriaz kartoi arpegi inguru inguruak eginda. Orduan guk siñestuko geunke ikusten doguna, guztia ori dala, edo oraingo klizeak diñoskuna: "ikusten dokana, ori lortuko dok".

* * *

GOGO-IZTIA

Wilson Van Dusen sikologuak gu guztion berezko sakontasuna agertzen dau. "Gugan berezko prolema, buruaustea dogu geu bertan bera iztea. Aibeste sorta-pillo eziketa, gure gizarteko oar-ikasi ezperientziak, ainbeste norbere eritxiz inguraturik gagoz-eta, illunduta ibilli bear. Eztabaidako izaten jaku trebetasun argirik egiteko. Kristau sinistea gañeratzen dogunean izatez-gaundiko, sakontasuna datorku ta gogamen sikoloji-gogoz-ko korapillatsu ezbaietan geu ezarri. Bakartasunak beste engandik aldentuta barruko sakonak argitu leikez. Lenengoz besteengandik aldentuteak garai-erea damosku geure barru-erdian zer garean atzalduteko. Ni irakasle naz, ni filosofu naz, ni euzkerazale naz; ni euskotar, euskaldun, jakiteak gauza oneik nortasun zati bat, norbere nor dan alde bat emoten dauste. Baiña aldi-aro eurak dira bizitzako zertzelada, goraberaren uñ zakarraldikaz joan-etorri leikien garrantzidun zatiak. Zeregiñ, izen lerro gustiz garrantzidun, ardurazkoak dirá gu zer garean ta nok diño ori, lagunduten adierazteko, baiña beste eritxiz ta epaiketaz beterik odira. Ta euren asmo onenekaz izanik be, beste batzuk bestelango berba ta gogamenekin ezagutuko gaitue. Danak berezko egiazkotasuna eskatu-arren, egiazkotasun ori ezina. Bateren batek esaten badau: "Zu alduna, aberatsa zara", edo "zu adimendun, burutsua", edo "zu asarrekor,

suminkorra zara" bere zenbaketak nigan emoten daustaz, bere gogoetak.

* * *

GEU

Izan be, bearrezkoak jakuz besteen orrelango zeazkuntzak. Baiña, bakarrean, guretzat onerakoak izango diran beste neurri, oar-ikasi ezperientzi ta beste jakite zatiak gañeratzeko trebe garanean.

Alde batetik, besteak geure azaleko ta aldiko irudia emoten deuskue, ta benetan au gogo-arimaren muga bat da. Alan be, beste arimaren aldeko inguruetan gure esku-ko atzamarrak erabili geinkez.

Gure biotza egiztatu ta arakatu gure barruko nortasunaren jakite lortzeak beragaz dakar gure kanpoko egunkari arlo zati baten ezautzea, zomorro, arpegi-ordeko dala.

Ori ezta gu garanearen egizkorik. Benetan, ez da erraz gu geu osoz garanearen egia aurkitzea ta eukitea Illunpean ta ezerezean dago ta Jaungoikoa'gan daukon menpetasun erdi-erdian.

* * *

ZERTAKO BAKARRIK

Bakartadeak gustiz berarizko bideak gogoratzeko aukera garaia emoten deusku.

Geugaz beti dago igaroa. Oraingoa eritzen dau, ta mugatu zenbatu bear dau. Bakartadean gagozanean juandakoa-adiskide, senide, gogo zuzendari ta osabide datorkuz burura. Oroimen aldian urkolagunen egiñak arakatzerá beartuten gaitu. Baretasun ta gogartean igarok esuera egokiak egin daiazan ganora ta astia emon leigu.

Oroimenak zer erre sortuazoten dau? Bakartadeko jasoerak ta edestiak, gu besteagandik aldentuta gagozanen aldi onetan aurreratu ta agertzen dira. Bartasunaren aurka nor egon leiteke? Batzuetan, bakartadearen alde diardugunean lagun taldeak itaunduten deuskue: "Baiña nor egon leiteke bakartasun zerbaiten bearrezkoaren aurka? Zegaitik iñok kontra egin bear leiskit batzuetan bakarrik egon bear dodala esaten da-dot?"

* * *

ONURAK

Ni eldu naz sinisterra bakartadearen aurkakintzak sortzen dirala euren egitarau ta uste dabean gogamen, asmo ta balioak zintzotasun ta menpetasun osoa eskatzen dogozan talde alkarteoia. Osotasun ta orotasunkiak eta erdira-nai truntzikorrek iñoren nortasunik ezta gura, ta danok gizateri agiria egin daigula norbere eskutuki bakoa, norbere asmo, elburu, eritxi barik bizi diranak. Beti be, bakarreko sakeletan talde moltzo gizartearen edota osokeri ta erdira-naikaren aurka doazen asmo sendoak, gogamen ta eritxi sakonak gordeten dira.

Kristautasunaren alde ainbeste oai-ondasun egin daben gogo-jardunak, beardaba, etziran sortuko gure Yñaki deunaren Manresa'ko kobako bakartade barik. Eta Euzkadi'ren Aberria egiteko asmo ederra, nundik dator gure Sabino Arana'ren bakartasun sakonetik baiño?...

EGILUZE'K

IPUIÑAK IPUIN-ONDOAK

ASKATASUNA

Euskalerrria ta Irlanda antzekoak dira eta ango andra-gizonak emengo langoxeak.

Ango Aberri zati batek azkatasuna dauko ta besteak ez. Bein, berrogeita sei urteren bat dirala, lortu genduan Euzkadi ta berari azkatasuna eutsiteko gudea egin. Au galduta, Franco'ren nagusitzapean egon gintzazan luzero, ainbat aldi, ta gero eldu zirean auteskundeak. Auteskundearen bidez, lortu zan erriagintea (Demokrazia) eta onen eraginez Gernika'ko Erakunde Araudia). Araudi au gure asmoentzat zatitxu bat, baiña azkatasun osoa eukiteko ames egin geinke eta utopia gorde ta erabilli berbaz eta idazkiz ontzat artu, baiña ez izkilluz, gogorkeri, indarkeri, zizti-zaztariz. Onetan desbardin urten gara Jeltzaille, P.N.V'nekoak Eta Ta Erri Batasun Taldekoak. Guk oneik lez Azkatasun osoa gura dogu, baiña etxoiten gagoz eta gabiltz edestiko garaiari, gogorkerietan sartu barik arein antzera...

* * *

IRLANDA'KO IPUIÑA

Irlanda'k dauko ipuin bat Jack deituten jakon gizon bateru buruz. Jack zikoitz, esku-labur antzekoa zan eta olangoxea izan be. Baiña Jack il zanean ez jakon itzi zerura sartzen Orduan inpernura joango zan? esango deustazue. Edo garbitokira? Ez. Zegaitik ez? San Pedro'ren erixian aren obenak astunak ziran-eta, Ama Birjiñak eta Jesus'ek beste eritxi bat eukin arren. Inpernuan be ezeutsoen itzi egoterik, beti olgetan deabruagaz, maltzurkeri itzelak egiten eutsoezalako. Bere izaeraren ondoren lez, beartu egin eben mundu guztian zear ibilten, guztien Epaikunderarte.

* * *

ESANGUREA

Alegiñak egin doguz zer aurkitu gura eban mundu guztiko lurraldetan ebillela billa billatzen bere argi gar aikolomakoloz. Auxe bai dakit munduko edozein aldera elduten dan Irlandar bateri iñoiz ez jako aitzuten bere Aberriko erri-ao-jakintza au, Jack krisaillu argiontzidun aren bere erri-jakintza.

Zikoitz gixajo onen aruntz-onuntza ibiltariaren irudi itxurapena etxeak, ikastolak, saltoki aletegiak orain apainduten dauz. Bai Jack krisailluduna, argia daroana! Jack zar gixajoarena da autamen ta aukera bat bakarrik eukana ibilli ta ibilli munduko tokietatik zear guztien Epaikunderarte.

LAGUNTZA

Ipuin labur au baiño guretzat garrantzi ta ardura geiagoko da Jack'en krisailluak daukon esangurea geure etxeetan urteko egun guztietan. Egite onek gure auzoko artean zurtasuna eragin leike.

Orraitiño, sakonez gogartu ezkeru, Jack'en argiontzi ori bear dogula ikusiko dogu. Ez ete da egia onbidean geu bizkortzeko oitura on bat onartu egitera beartuak edo borondate onez egon bear gareala? Arrituta geratuko gintzakez ikusirik zenbat lagunduten deuskun gure bizitzak ekanduz obeak izateko.

Jakiña, antxiñako Jack'en krisaillutzaz diardugu, eta ez kartoagaz egindako aren antzeko bateri buruz. Ezkaratz eginkizun au amaituta gero, kubitxoa aldatzen da polito.

Begietatik eta aoko agiñak erakusten dituan irri-barrepoz-zabala egiten dauan aotik argi bellegi eder batek urteten dau.

* * *

ANTXIÑAKO ARGIA

Bearbada, tximist-argia baiño lenagoko aldietan, Jack'en krisaillua gabeko illunetan ibilli bear ziranentzat laguntza eder, otseintza beraldikoa izango zan. Krisaillu ta argiontzi guztiak lez, lagungarri ta sorozki andirako etxe-ko, auzoko ta adizkideentzat izatezan Urrillean egunak laburtu egiten dira ta euretan laster egiten da illuna. Gure antxiñakoentzat bildurrezko urtaroa izaten zan neguko egun labur ta gau luzeen urreratzeaz otz andi ta janari gixigaz. Jack'en krisailluaren gomutakia urtearo orretan poztasun ezaugarria izango zan. Guztiai argitzen eutsean laguntza ta atsegiña egiten zan. Argiaren laguntasun onek Jack'en Irlanda'ko ipuin onen baliotasuna dakarsku burura.

* * *

EBANJELIOA

Jesus'ek iñoan: "Zuek munduko argia zarie". Zeru-Erreiñua zeuron barruan dagonez eta argia izan bear zarie, argitu dagiela besteai dirdirtsu ta pozgarri laguntasunez urko-lagunai. Gure laguntasuna besteentzat argia edo illuna izan leiteke. Illuna izango da maitasun bakoa, oitura itsua, makiña tresneen langoa ba-da. Laguntza argitsu, erruki maitasunezko da, posez betekoa, iñoizbez naitaezkoa bakarrik zeregiñezkoa. Jesukristo'ren ikasle ta jarraitzalle diranak lagundu bear dabe era argitsuz, posez beterik.

LETONA'K

BIZKAIKO IRU EUSKALKIAK

“Deian”, 1985, ekainak 2 igandea, egun aldiaz, agertu zan idazlan bat, itxuraz Bizkaieraren alde, baiña barruan ta egiz otso-belarriak ikusten jakozan urrunetik bere egilleari, Bizkaiko gauzak atsegin barik artuaz.

“Deia” Bizkai’ko izparringia izan arren, Bizkaiataren diruaz bizitzea euki ta be, olango idazle jator-ezaz beterik dabil, ta Bizkai’ko idazle batzui ez dautse emoten eskubiderik idazteko Bizkaitarra dan egunorokoa, ez dakigula ondo euskerea esanez. Tamalez, kokolo denganiñozta nortasunbako jator ezaz unguraturik sarri-askotan semeak neure aurka dabilzt! Jainkoak emodako norberen etxe ta erriari ondasunak ez onartu ta pozik euki, eskar onez era biltea ezpalitz onoinena, gizartean ondo jokatzea!...

* * *

KONDAIRA

Eurok gura dabenean Euzkadi gogoraten deuskue... Laterri alde norki ta errien eskubideak ukatu, urkatu ta sarrazkitu... ori ezta kristiñauen egoerea, ori jentillen, Jakobinoen, Chauvinisten gogorapena da. Euzkadi’k bear dauanean danon artean lagundu bear jako. Adibidez Lengo azken gizealdean, 19-82 urte inguruetan Bigarren Karlisten Gudea Bizkaitarrok sortu gendurakoan On Karlos’iek eskeindu euskuzan geure Foruak, Errege Aulkia jadesten lagunduten ba-geutson. Bizkaitaitarrok batu genduzan zortzi edo amar gudatale (batalloi) indartsuak Gudalburu Uribarri kementsuaren menpean. Baiña lenago ta obeto garaitzara elduteko Gipuzkoar-gandik ta gero Naparroena laguntza lortu gura genduan. Gugana guda talde bi Ayastuy ta Amelibia gudalburu. Ayastuy ta bere gudariak lagundu euskuen asko geugaz bat eginda bera gizandi bat lez il arte. Baiña Amallibia’k itxi Gipuzkoa eldu Bergara Txapel Gorri Mikeletez beterik egoala esanda guk. Orduan bakarrik Oñaten gudaldia aurkeztu genduan ta garaille urten 52 atxillotu Txapel-Gorri ta Mikeletai kristiñauek egin daben lez bizia parkatu eta Letona Gudalburu Libaralari emon, eskuratuta. Ezdakigu onek zelan epaituko zituan Txapel Gorriek egin eben egintza txarra iltean gure 18 kalarista atxillotuak.

Gero alegiñak egin genduzan aurea joateko geure ekiñalean ta entzun be 32.000 mille napar gudari geuri etxoiten egozala... aurrera eroateko gudea... Ez zan egia. Ez naparrak, ez gipuzkoarrek ez eben gugaz bat egin. Eta etzan lortu Forurik.

Orainguk Bizkaitarrok diñogu zegaitik iraunkor leia, gurari amorrutua geugaz bat egiteko/lenengo kendu geure Euskera edera geure diruaz, geurea ilda batua sartu iñok eztau dauan ikasiko ta banandu anai onbatzuk lez ondasun guztiak. Joko ori artuteko borondatez kikildurik edo kokolotuta egon bear geintez. Ugari dira olan dagozenak, baiña danak ez. Bestelan, itaundu eiozue Olaverri Jaunari ze erantzuna emon eutson orretaz Jon Imanol Azua Mendia’k, eta Makua’k Garaikoetxeari.

* * *

BIZKAIEREAREN ALDE

Urten dot aritik. Ez ainbestean, oraitiño, onelango gogakizunak oroitu bear doguz ekiñalean bide artezetik ibilli gaitzean eta goazen ba, esan dogun idazlana jorratutera.

Nastakeri andia sartu eban.

Bera antzez, Bizkaiere alde dagoala esan lei, baiña erabilten dauz Bizkaierearen kontra dabilten guzur sasi-arrazoia (sofismak). Itz labur edo berba asieraren taldeko, gutariko bat orain lau edo sei urte egon zan Sanblasetan Abadiño’n eta ango mutil buru gogor bateri, diñogun sasi arrazoia entzun euson.

* * *

ALKAR ULERTU

Abadiño’ko mutillak Bizkaierearen kontra iñoan Bizkaia’n euskalki (dialekto) larregi erabilela, Bizkaiera ez da bardia; erri baten berba egiten ebena ez dala ulertzen beste errian.

Ez ori ezta zuk diñozun lez. Zorionez, Bizkaia’k danok alkarerri ulertu egiten dautsegu, esanaz: ez arduratu, polito egiten dozu. Kerexeta jaunak bere Biblia Bizkaitar euskaldun etxe guztietan zabalduta deuko, ta brabilten dauan Euskerea danok ulertuten dautsegu.

Guk Bizkaia’n iru euskalki darabilguna ezta egia. Guk alkar ulertuten dogu erraz ta pozik. Guretat Zamarripa, Krikiño, On Domingo Agirre (Kresalan) Akesolo, Onandia, Zubikaray, Olazar... euskal idazle on-onak dira Guk onetan ez daukogu asma-kizun, prolema, buruausterik. Guri orretan esaten deuskuna ezta sasi-arrazoia bat baiño gure izen ona Euskereari kenduteko, ta euren batu zantarra sartzeko, batu ori batek esan eutsona: “Jainkabakoen ume mordolloa, diabrukumea danez adarrak be daukozala ama lenago ilteko”. Eurok bai daukie prolema: Goierriko dala ala ez; Eibarreko, Mutiloa ala Zerain’goa...” Euron euskerearen idazlariek asmalari dira. Bein Kintana’k Donosti’ko “Argian” idatzi eban “Literatur gipuzkera ez dala egiazkoa, asmakeria ta geometria utsa baizik”. Amaituko dogu atarraldi au Zamarripa’ren Kilikili idastitxu politaren idazki zatia birregiñez. Azkue, Kirikiño, Zamarrarripa ta onek iñoan “nire gogamenetako giputxek” musean jokatzen eben sarritan. Zamarripa’k ataraten dau kolkotik besapean ekarriko liburua. “Ene! Zaparradak-Eta! -urteten dau nire gogamenetako giputxak. Baiña egillea Bizkaitarra da noski, ta agian Bizkaiko euskeran dau de liburu ontako lanak.

—Ta ze? —erantzuten dautso Zamarripak— Bizkaiko euskeran ezin lei egin lan onik ala? Zurok gipuzkoarrok, parkatu baiña-zeuron euskerea daukazue bakarrik ontzat;... ta ori eztago ondo!

—Zertarako dirade liburu ortako lanak ba?

—Zertarako direan? Barreka —barreka, erdarzaleak euskalzaletuteko, ta euskalzaleak euskalzaleagotuteko. Euskalzaletzat euron burua daukien guztiak erosi bear leukie liburu onen ieki bana. Bana esan dot? Ba ezto ondo esan. Biña erosi bear leukiez. Bat eurontzako ta bestea euron adizkide erdezaleenari emoteko...

—Zer esango dot nik? Eskerrik asko Txitxuri, beronek bota daustazan larakaitik. Eskerrik asko guztioi, igaro eragin dauastazuen atsegiñaldi gozoagaitik. Eta orain berba bigaz amaituteko:

Gora Euskerea!

Gora!! Gora!!

Gora ikaragarri bat jaurti da nire gelan. Eta beste gora ikaragarriago bi kanpoan...

EUSKERA ABERASTU**ESAERA-ZARRAK**

Artzeko poz, emoteko motz = (Largo en pedir, corto en dar).

Asarretzen dana, adiskidetzen lana.

Asko daukanak, geiago nai = (El rico nunca se sacia).

Ago andia, beso motz = (Berba asko eta egite gitxi).

Asko ikusia, asko ikasia.

Asko berba egin, eta gitxi esan.

Agoa zabaldu, eta agotik galdu = (Por la boca muere el pez).

Asko santu gisan, baiña gitxi izan = (Muchos parecen buenos, pero pocos lo son).

Alperrak diño: astegun guztiak, jai balira.

Artzainak asarretu, eta gaztaiak merkatu.

Artzainak asarre, otsoak irabazle.

Astoa, bide-gidari onena.

Astoak katuari, belarri luze.

Astoaren umeak, astakumeak = (Zelakoa aita, alakoak semeak).

Astoa zaldiz jantzi arren, beti asto = (Aunque la mona se vista de seda...)

Au parea: karakola ta barea.

Aurak ikasia, etxean ikusia.

Bakotxak berea, da zuzenbidea.

Balitzko errotak urunik ez.

Balego eta balitz, alkarrekin dabilz.

Balitz eta bazan, alkarrekin dantzan.

Balitzko esneaz, ezin gosaldtu,

Baserritarrak oilloa azten, eta kaletarrak jaten.

Batak so, besteak arren, ez goaz iñora be.

Bear ditu urte pilloak, lagun onak eta ardoak.

Bear zaitut eta geldi zaituz, bear etzaitut eta ken zaituz.

Begiitsuak negarrik ez, ago itxira eulirik ez.

Bei baltzak, esne zuria.

Belearen esnea zuria.

Belearen arrautzak, usakumerik ez.

Belearen kumea, belea beti.

Baltz guztiak, ez dira belak.

INAKI GOIKOETXEA

ZER'EN SENDIKOAI OARRA

“Zer” gure aldizkariaren 95n. zenbakia dogu oraingo au. Laster eungarren zenbakira eltzen gara ba, eta zenbaki biribil ori bide dala ospakizun bat egitea gura genduke.

Orretarako ekintza bi artzen doguz. Lenengo, 100n. zenbaki ori berezi lez argitaratu, orri geiagogaz eta idaz-lanak ugariago dauzala. Orri orreitan agertuko dogu baita orain-arte zenbat idazlek idatzi daben aldizkari onetan, euren izenak eta lanen kopurua agertuz.

Zenbaki berezi orretarako lanak gertatzeko deia egiten dautsegu bizkaieraz idazten daben idazle guztiai eta gure eskerrik beroena aurretiaz agertzen dautsegu.

Zenbaki ori agertzen dan inguruan, uda-aldian, batzar bat egingo dogu bazkari ta guzti eta batzar-

bazkari orretara deituta geratzen dira gure idazle guztiak. Lenago be egin genduan olako batzar bat eta bakoitxak bere bazkaria ordainduta izan zan, baiña oraingo onetan EUSKERAZALEAK ALKARTEA'k ordainduko dau bazkari ori, esker onaren ezaugarri lez.

Batzarrean, bazkal-aurrean, gure jokabidea ta gure lanak aztertuko doguz eta jokabide barriak artu. Guztioi entzuteko gogoz eta pozetan gagoz.

Sasoiz agertuko da batzarrera deia. Bitartean zuek idatzi zenbaki berezi orretarako lana, orrialde bi edo laukoa izan daitela al dala.

Gure agurrik beroena guztioi.

EUSKERAZALEAK

“ZER'EN ZUZENDARITZA”


Gure alegiña Bizkaiarentzat da.

Gaur, beti lez, gure erriaren billaketa-lanari laguntzeko gagoz.

Gaur, aurrera joteko sasoian, itxaropena oztopoen gaiñetik jarrita,
otseintza ta laguntzarako gure gogorik onena,
barriro ta geiagotuz sortzen da.

Gaur, eta egunero, Bizkaiaren izena omentsu eta,
batez be, emoneko berba lez daroan
Aurrezki Kutxaren lana, indarra ta amesak, ez dabe utsik egingo.

Berari erantzuten jarraituko dogu.



TXURRUKA'ri oroitarria Areetan.
Itxasoaren oldarra gelditzen,
gizonaren neurribako
alegiña:

BIZKAIKO
AURREZKI KUTXA



CAJA DE AHORROS
VIZCAINA

Bizkaiko Foru Diputazioak sortu eta bultzatutako Erakundea.